

Window to the West: Culture and Environment in the Scottish Gàidhealtachd

MEG BATEMAN, JOHN PURSER

An t-Eilean Sgitheanach: Clò Ostaig, 2020, 960 or.*

*Am fear a chailleas a chànan
caillidh e a shaoghal.
An Gàidheal a chailleas a chànan
caillidh e an saoghal.*

Hizkuntza galtzen duenak
bere mundua galtzen du.
Hizkuntza galtzen duen gaelikoak
mundua galtzen du.

Iain Mac a' Ghobhainn
Am Faigh a' Ghàidhlig Bàs?

Hizkuntza galtzen duen gaelikoak bere mundua galdu beharrear mundua bera galtzen duen baieztapena sakona da. Gaelerak mundu osoa bere baitan daukala esan nahi du, eta zuzena da, hizkuntza jakina ez baita unibertsala mundu osoak hitz egiten duelako, hizkuntzak mundu osoa hitzetara eramán dezakeelako baizik. Hizkuntzak, hein jakinean, pentsamenduaren *adierazpenaren* izaera xedatzen du —pentsamendua bera ez¹—, eta, ondorioz, hiztuna bera herrian eta atzerrian aditzera nola ematen den. XXI. mendean, ondare oparo eta aberatseko gaelera hiztun-komunitatearen osasuna oso malkal dagoenean, hizkuntza horren eta haren herriaren aldeko ekimenen ar-

* Nire esker ona eman nahi diet 2023ko maiatza-ekainean Sabhal Mòr Ostaig, Ionad Nàiseanta airson Cànan is Cultar na Gàidhlig, Eskoziako unibertsitate gaelikoan egonaldi oparoa eskaini zidaten guztiei, eta Mondragon Unibertsitateko *Biziguneak* ikerketa-taldeko ene kideei.

¹ Horri buruz: “Hautematea eta nabaritzea ez dira neutroak edo automatikoak, kultura jakinak munduaren gainean duen hipotesiak baldintzatutakoa ikusten duen garunaren ezagutzakintzak baizik.” (Wells 2012: 18-19) [Perceiving and experiencing are not neutral or automatic but they are acts of cognition by which the brain sees what it has been conditioned to see by a particular culture’s hypotheses about the world.]

tean, liburu ugaria dugu *Window to the West: Culture and Environment in the Scottish Gàidhealtachd* [Mendebaldera leihoa: kultura eta ingurunea Eskoziako gaelera hitzun-komunitatean], ingelesez idatzia eta doan eskuragarri: <http://www.smo.uhi.ac.uk/files/PDFs/Window-to-the-West.pdf>

Liburua Skye uhartean kokatuta dagoen eta 50 urte (1973-2023) betetzen ari den Sabhal Mòr Ostaig-ek argitaratu du, Lur Garai² eta Uharteetako Unibertsitatearen baitan gaeleraz eta herri gaelikoaren garapenerako ikas-ikerketari bideratzen duen ikastetxeak, bertako bi egile sendoren eskutik: Meg Bateman eta John Purser. Literatura eta filosofia gaelikoan lan handia eginikoa da lehenak (ikus haren *The Themes and Images of Classical Gaelic Religious Poetry*, 1990); arkeomusikologia eta konposizioan, bigarrena (ikus haren *The Literary Works of Jack B. Yeats*, 1988, eta *Scotland's Music: A History of the Traditional and Classic Music of Scotland from Early Times to the Present Day*, 2007).

Obra honetan, ibilbide akademiko luze eta emankorreko egileek, 2005-2010 urteetan Erresuma Batuko Arts and Humanities Research Councilen babespean eta Dundee Unibertsitateko Visual Arts Centrekin batera eginiko *Window to the West: Redefining Highland Art* proiektuaren emaitzarik handiena ekarri digute. Pertzepzio gaelikoaren *adierazpena*, munduaren aurreko erantzun gaelikoa, zehatz eta sakon aztertu dute, eta haren berezitasunak azaldu. Ingurunea, tresneria, herri-jakintza, hizkuntza, musika, iruditegia, pentsamendua... Herri gaelikoaren arlo guztiak ikertu dituzte, kultura gaelikoaren baitatik haren ezagutza hobea izan dezagun. Halako asmoak arlo askotako hamaika adituren zuzenketak eskatu ditu, eta urte luzez diziplinartekotasunean eginiko lana.

Izan ere, sorkuntza gaelikoaren birdefiniziorako, hiru urrats handi egin behar dira. Ezinbestekoa da, lehenik eta behin, *gaeliko* hitzaren bidez zer adierazten den ondo jakitea: Irlandako, Eskoziako eta Man uharteko gaeleren erroan dagoen hizkuntza zeltikoen adar goidelikoa, idatzizko ondarean K.o. VI. mendetik ezaguna, eta K.o. V. mendetik aurrera Eskozia eta Irlanda arteko kanalaren inguruan eratutako erreinu eta komunitate erlijiosoan garatua, eta, horrekin bat eta ondoren, Eskoziako gaelera eta haren herri gaelikoa. Bigarrenik, ondorioz, gaelera hitzun-komunitateaz beste hitzun-komunitate handiren batek zer esan duen gaingaitzea: ingeles inperialismoaren joerak ekarritako galeraren aurka egitea, Gàidhealtachd edo gaelera hitzun-komunitatea argi berritara ekarriz. Eta, hirugarrenik, azter daitekeen eta adierazpenaren erakusle den ikusmen-kultura edo kultura bisuala ahalik eta ondoen ezagutzea eta aurkeztea; oinarri, altxor eta helduleku bihurtzea.

Horregatik guztiagatik, liburua ez da artearen historiari buruzko lana, ikusmenaren eta haren adierazpenaren tradizioaren bilduma eta azterketa

² Gàidhealtachd hitzak, gaelera hitzun-komunitatea adierazteaz gain, Eskoziako Goierria izendatzen du. Testuan *Lur Garai* darabilgu, baina jator hori dugu: *Goierri*.

baizik, herri gaelikoa bere baitatik eta atetik —atzerritik— zer den edo datekeen uler dezagun. Hortaz, alde batetik, lanak ikuspegi sinkronikoa eta holistikoa dauka, kultura gaelikoa ingurune fisikoan eta beste kulturaren batzuekin harremanetan kontuan izanik, eta, beste aldetik, ikuspegi diakronikoa ere badu, eta mendeetan barrena jorratzen du, Lur Garai eta Uharteez gain, esanguratsua denean, Eskozia osoko eta kontinenteko zelten kulturari heldurik. Liburua, ondorioz, lan entziklopedikoa da, eremu askotako jakintza sistematikoki eta garapenean —espiralean, aurretik esandakoa bilduz eta maila handiagora eramanez— erakusten duena. Haren antolaketak gai-zerrenda zabalak erakusten du:

1. Ingurumena eta ikusmena:
 - 1.1. Bigarren begirada (*Second Sight*) eta iluntasun garbi eta sortzailea (*Imbas forosnai*).
 - 1.2. Gau-egunak, urtaroak eta sasoen banaketa.
 - 1.3. Testuinguru geografikoa, lurra eta itsasoa.
2. Ikusmen-erak gaeleraz:
 - 2.1. Norbera.
 - 2.2. Ikusgarriaren hiztegia, koloreak eta metaforak.
 - 2.3. Hizki eta marrazkiaren lotura, hitzaren sakraltasuna eta idazkera.
3. Habitatutako lur eta itsas ikuspegiak:
 - 3.1. Lurra, ura eta zerua.
 - 3.2. Ingurunea, zuhaitzak, landareak eta piztiak.
 - 3.3. Giza jardunak eta bizi-erak.
4. Kultura materiala:
 - 4.1. Eraikinak eta tenpluak.
 - 4.2. Tresnak, idazkiak, jantziak, bitxiak, musika-tresnak, armak.
 - 4.3. Dantza, soinua eta irudien joskera eta sinbolismoa.
5. Leku eta ondarean errotutako bizitza:
 - 5.1. Toponimia eta izendegia.
 - 5.2. Etnia eta kultura.
 - 5.3. Denbora zirkularra.
6. Kosmologia:
 - 6.1. Mitoak, bestaldea (*Otherworld*) eta paganismo-kristautasun sintesia.
 - 6.2. Filosofia.
 - 6.3. Egitura eta transmisioa.

Mila bat orrialde, beraz, herri gaelikoaren izaera haren ikur-, keinu-, joera- eta joskera-adierazpenen bidez aztertu eta azaltzeko. Bibliografia-zerrenda eta harekin eraturako aparatuko kritikoa, ondorioz, ezagutza-harrobi aberats eta zehatza dira. Ikertzaileak iturri baliagarri asko aurkituko da, bere intereseko gaiaren inguruan zein horrekin loturan, eta, horrez gain, nortasun gaelikoaren begirada hobeto balioesteko oinarria beregana dezake.³

Izan ere, gaelera eta herri gaelikoaren arduraz eta maitasunez eginiko lan akademiko ugari hau, bere ikergaiaren ahotsaren alde egiten duen heinean —birdefinizioarako helduleku—, bere muinean, deskolonizazio-ekintza da. Alde batetik, ingeles hiztun-komunitateak herri gaelikoa apurtu edota estaltzeko (izan) duen joera, ekimen eta “izugarritzko indar etnozidaren”⁴ aurrean —John MacInnesen (2006: 92; ikus MacKinnon 2011) hitzak erabiliz—; eta, bestetik, ingeles kulturaren arauak eta erakundeek definitutako arte eta ikuspegia gaindituz.⁵ Ingeles erdarak herri gaelikoaren baitan sortutako hausturak handiak dira, honako testu honek erakusten duenez, eta birdefinizioaren beharra aspalditik izan dute:

Zertan datza Lur Garaietakoa izatea? [...] Nik diot Lur Garaietan jaino eta Lur Garaietako hizkuntza hitz egiten dutenak benetako Lur Garaietako jatorrak direla, eta ez beste inor. Jarrera hori probatzeko, egungo Lochiel, jatorriz eta jaiotzez Lur Garaietako leinu horretako buruzagia, Lur Garaietakoa ez dela esatera ausartzen naiz; jaun ingelesa besterik ez da. Ingelesen ideia, pentsamendu, gustu eta emozio guztietan sar daiteke, baina Lur Garaietakoekiko edozein harreman intimotatik erabat at dago, haien pentsamenduak adierazten dituen hizkuntza ezagutzen

³ Gaelikoek badute hori guztia bildu eta esateko aberastasun semantiko handiko hitza: *dùthchas*. John MacInnesen hitzetan: “Poesia honetan hezia den berezko gaelikoak ez du irudimenean ikuspegi, geografia edo historia zentzu jakina beste barik hartzen, guztiak elkartzen dituen bizipen ordena formal baizik... Dùthchas antzinako arbaso-lurra da; etxeko tradizioa ere bada; eta, hein berean, banakoaren oinordeko ezaugarri multzoa ere bada.” (2006: 279) [The native Gael who is instructed in this poetry carries in his imagination not so much a landscape, not a sense of geography alone, nor of history alone, but a formal order of experience in which there are all merged... Dùthchas is ancestral family land; it is also family tradition; and equally, it is the hereditary qualities of an individual.]

Dùthchas ahaidetasuna, ondarea, iturria, mintzaira da, herria eta luraren arteko lotura, izpiritu mailako harremana bermatzen duena. Euskaraz *herri* hitza horren ordain izan dakiguke, eta bizi garen mundua mundu dela erakutsi, haren baitan bizi garelako, istorioz, poz-minez, itxaropenez eta arduraz betez.

⁴ [overwhelming ethnocidal power.]

⁵ Beharbada, liburuaren irakurketa hizkuntza eta kultura gaelikoaren zainketa eta sustapenaren barne-etzabaidarako egokia izan daiteke, 2020ko Conchúr Ó Giollagáin eta besteren *The Gaelic Crisis in the Vernacular Community* liburuaren, 2022ko Soillse jardunaldiaren eta 2021eko *Scottish Affairs* aldizkari 30(2) *Scotland's Gàidhealtachd Futures* zenbakiaren (Oliver eta MacKinnon 2021) ondorengo 2022ko aldizkari bereko 31(1) zenbakian (hainbat egile 2022) egindako adierazpenek agerian uzten dutenez. Argi eta garbi, berezko herri gaelikoa bere baitatik ezagutzea ezinbestekoa da gaur-gerorik ganoraz irudikatzeko unean.

ez duen heinean. (*The Highlander* 1875eko abenduaren 18, in Newton 2009: 54)⁶

Beraz, ikusgarri den arte bisualarekin bat begi hutsez ikusten ez dena ulertzera emateko, liburu osoan barrena, gaeleraren arnasa eta esan-indarra aztertzen dira. Hots, egileek azaltzen dute hitzek eta esaldiek nola bideratu eta bideratzen duten munduaren adierazpen eta ikuspegi gaelikoa; horretarako, irakurlearen eskura jartzen dute herri gaelikoak, aztergai duten errepresentazio bisualaren zentzua esanahi egokira ekartzeko, eratu duen tesuingurua. Mende askotako eskuizkribu, eskultura, margolan eta arotz-lana, hortaz, euren horretan eta gaeleraren argitan aztertu dituzte egileek, eta, ondorioz, oinarri teoriko eta kontzeptual sendoa erakutsi dute. Hori dela eta, Bateman eta Purserren lanak aitzindari gutxi ditu, eta bi dira, ondare gaelikoaren aurkezpen sakon eta koherentea eginik, eredutzat izan dituztenak: Robert O'Driscollek zuzendutako *The Celtic Consciousness* (1981) eta Michael Newtonen *Warriors of the Word: The World of the Scottish Highlanders* (2009). Izan ere, gisa honetako abiapuntua duten lanak gutxi dira:

Gille-brighdek, “ostrazale”arentzako izenak gaeleraz, jarraipen kulturalaren adibidea eskaini diezaguke. Ingelesak, frantsesak, alemanak eta latinak ostrak harrapatzen dituen txoria ikusten dute; gaelerak “Brigida [jainkosa]ren zerbitzaria” den txoria. Irudimen-ariketa behar da bere bizkarrean Kristo salbatzeagatik txoria jasotako gurutzea ikusteko, folklore gaelikoaren arabera. Askoz argiagoak dira, ordea, bere hegoen ertzetako galoi zuriak, Marija Gimbutasek Neolitoko Europa osoan zehar jainkosarekin parekatzen duen marka. Marka horiek txoria Brigida jainkosarekin lotzea eragin bazuten Brigida kristau-sasioan santu bihurtu baino askoz lehenago, gaelerazko hitzak milaka urte dituen ikusteko modu berezia gordetzen du. (Bateman eta Purser 2020: 11)⁷

Orain artekoa labur esanik: Bateman eta Purserrek herri eta adierazpen gaelikoa historiaurreko erroetatik gaur egungo *Gàidhealtachdera* aztertu dute,

⁶ [What constitutes a Highlander? (...) I say those who are born in the Highlands and speak the language of the Highlanders are genuine Highlanders, and none others. To test this position, I venture to assert that the present Lochiel, by descent and birth the chief of a Highland clan, is not a Highlander; he is simply an English gentleman. He can enter into all the ideas, thoughts, tastes and emotions of Englishmen; but he is entirely cut off from any such intimate relationship with Highlanders so long as he is unacquainted with the language in which their thoughts are conveyed.]

⁷ [*Gille-brighde*, the name for the “oystercatcher” in Gaelic, may provide us with an example of cultural continuity. English, French, German and Latin see a bird that catches oysters; Gaelic sees a bird that is “the servant of [the goddess] Brigid”. It requires a stretch of the imagination to see the cross on its back with which the bird was marked for saving Christ, according to Gaelic folklore. Far clearer, however, are the white chevrons on the edge of its wings, a mark which Marija Gimbutas equates with the goddess throughout Neolithic Europe. If these marks caused the bird to be linked with the goddess Brigid long before Brigid became a saint in Christian times, the Gaelic word preserves a particular way of seeing that is thousands of years old.]

eta *continuum* legez aurkeztu. Erabilitako iturriak askotarikoak dira —arkeologikoak, mitologikoak, filologikoak, idatzizkoak, ahozkoak, artistikoak, erlijiozkoak—, eta hurbilpen integrala egin diote. Hala, herri gaelikoak beste hainbat herri eta kulturarekin (izan) dituen harremanen eta nahastearen muinean, berezkoa den ardatz edo izaera filosofikoa azaltzeko saiakera sendo-sendoa egin dute.

Euskal Herriari dagokionez, antzeko ekimenik egitekotan, Etniker Euskal Herria taldeko *Atlas Etnografikoa* oinarri izan beharko litzateke, eta, horrekin bat, Joxe Migel Barandiaranen begirada eta gaitasuna euskal etnia eta kultura ulertzeko, besteak beste. Izan ere, euskal nortasunaren eta adierazpenaren emarian euskaldunek antzinako indoeuropar herrien, kristautasunaren eta modernitatearen ekarpenekin eginiko sintesia aurkituko dugu, eta huts handia egitea izango litzateke zentzu positibista gordinean euskal purutasunik bereizi nahi izatea. Ibaiek iturri eta mendi-magal askotako ur-lurrak nahastean eta laster bereizi ezinean dakartzan legez, hala dira herriak. Baina, hala ere, badago oinarrizko arnas eta taupadarik, ibaiak berezko joera, bidea, duen eran. Gure herriaren muina Barandiaranek euskal gizabidearen adierazpen xume eta gorentzat zeukan honako esaldian ikusi zuen: “Ez gara gure baitakoak, beste baten baitakoak baino” (1977: 18). Transzendentziarako eta sakoneko zentzurako irekidura apal hori metafisika, estetika eta etika handitarako oinarri litzateke.

Izan ere, izaki eta gizaki orok bizitza eta zentzua harremanetan aurkituko ditu. Horregatik, Bateman eta Purserrek asko zor diote, lanaren izenburutik bertatik, antzeko gogoeta sakona hitzetara eraman zuen Somhairle MacGill-Eain poetari eta haren *Hallaig* poemari.⁸ 1967ko testu horretan, ezkertiar, agnostiko eta ikasia izanagatik ere, poetak herri gaelikoaren ikuspegi ikusezina, aro borobila eta izaki ororen arteko sakoneko lotura erakutsi zituen; hau da, begi hutsez ikusten ez dena. Leiho-atariak ikuspegia era horretan ikusten lagundu zion, eta bere maitea hainbat zuhaitzen itxuraz ikusi zuen, baita lur hartan izandako arbasoen hainbat belaunaldi ere. Herriari zion maitasunak aurrean zuen herri bortxatuaz haraindi ikusteko gaitasuna eman zion.⁹ MacGill-Eain poetari jarraituz, poeta ere badiren Bateman eta Purserren lanak ardura handiko xedea dauka: gaelerarentzat eta gaelikoentzat, teoria

⁸ “Ohol eta iltzeko leiho / Mendebaldea ikusi nuen hartatik / eta nire maitea Hallaig-eko errekan dago / urki, eta beti izan da / Inbhir eta Esne-aranaren artean / han-hemen Bhaile Chùirn inguruan: / urki da, hurritz, / izei, otsalzar lirain gazte.” [Tha bùird is tàirnean air an uinneig / trom faca mi an àird an Iar / 's tha mo ghaol aig Allt Hallaig / 'na craoibh bheithe, 's bha i riamh / eadar an t-Inbhir 's Poll a' Bhainne, / thall 's a-bhos mu Bhaile Chùirn: / tha i na beithe, na calltainn, / na caorann dhreach sheang ùir.]

⁹ Gaelikoen egitura sozial eta fisikoen azken apurketa handia *Fuadaichean nan Gàidheal* edo gaelikoen garbiketa legez ezagutzen da; xviii. eta xix. mendeetan, Lur Garai eta Uharteetan, hainbat baserriarren kanporaketa behartua. Horren adierazle ere izan daiteke Sabhal Mòr Ostaig-eko *Cranngal* eskultura, Will MacLean eta Arthur Watson egileena.

eta gogoaren eremuan, tokia lortzea, eta hori ekarpen aberatsaren bidez irabaztea. Ekologiaren aldetik, zor zitzaion ekimena da, inoiz lurraren joerekin batuago jardun dezakeen nazioarteko zuzenbide eta jarrerarik balego, gaelerazko gaelikoen adierazpenak bere tokia izan dezan. Nettle eta Romainek azaldu zuten:

Kultura- eta biologia-aniztasuna erlazionatuta egoteaz gain, sarritan bereizezinak dira, agian koeboluzioaren bidez kausaz loturik habitat jakinetan. Ikerketek nahiko korrelazio deigarriak erakutsi dituzte biodibertsitate-eremuen eta hizkuntza-aniztasun handieneko eremuen artean, eta aukera eman digute biolinguistika-aniztasuna dei dezakegunaren biltegi komunaz hitz egiteko: lurreko landare eta animalia espezie guztiak barne hartzen dituen bizitzaren espektro oparoaz, giza kulturekin eta haien hizkuntzekin batera. (Nettle eta Romaine 2000: 13)¹⁰

Window to the West erakusten duen mendebalderako ikuspegia, hortaz, herriaren baitara begiratzea da, edota mundua herriaren baitatik ikustea; egungo mundu global, azeleratu eta hiltzaileak ezagutzen ez dituen babilio eta iturriak ezagutzea. Baina, horrez gain, mendebaldera begiratzea hori baino gehiago izan daiteke, J.R.R. Tolkienek *Silmarillionen* (2013) erakutsi zuen legez, Antzinako Mendebaldera begiratzea ere izan daiteke-eta. Eta hark ere ondo zekien bezala, MacGill-Eain, Bateman eta Purserrekin bat, Mendebalderako ikuspegia bera irudikatu egin behar da, egun dugun herri gaelikoa —edota euskalduna— minduta, zaurituta, itsututa, bihurtuta, ostenduta, dagoelako. Abiapuntua bera berreskuratzeko saiakera da Bateman eta Purserren lana, besteren batzuek ere MacGill-Eainek —edota Tolkienek— ikusi zutena ikusi ahal izateko; aurreiritzi, makineria, basamortutze eta kulturaren lortzearen iluntasunetik harago, herri gaelikoaren —eta hura baino lehenagoko— iragan eta muinera begiratu ahal izateko.

Horregatik, ezinbesteko helduleku legez, Bateman eta Purser kultura gaelikoaren alde ikusgarrian, bisualean, oinarritu dira, eskuz egin zein ahoz esan den adierazpen eta kontzeptualizazioan. Horrekin bat, sakraltasuna, izadiarekiko lotura estua eta mugimendua aztertu dituzte, eta printzipio horiek kultura materialean nola adierazten diren —zutarri, gurutze zein kanpaiek espiralak eta asimetria nola bilatzen dituzten arkitektura, eskultura, bitxi zein eskuizkribuetan—. Haien irakaspenez, Jainkoa unibertsoaren bizi-indarra legez adierazten da. Errotazioa, inbertsioa, transposizioa edota proportzio geo-

¹⁰ [Cultural diversity and biological diversity are not only related, but often inseparable, perhaps causally connected through coevolution in specific habitats. Research has shown quite striking correlations between areas of biodiversity and areas of highest linguistic diversity, allowing us to talk about a common repository of what we will call biolinguistic diversity: the rich spectrum of life encompassing all the earth's species of plants and animals along with the human cultures and their languages.]

metrikoa horren egitura-teknika edo bide dira. Horren guztiaren irakurketa eta hausnarketa geldoarekin, gaelikoez munduan (izan) duten toki eta irudimenaren berri izan dezakegu, haiekin batera haien lurretan egonik begimen sakona errazago izan dezagun (ikus Campbell 2014; Cheape 2020; MacLean 1975).¹¹

Liburuaren irakaspena, beraz, herri gaelikoan erroturik bada ere, hura baino harago doa: indibidualismoan eta hiritartasunean oinarritzen ez diren beste bizierarik egon den eta egon daitekeen aldarrikapena daukagu; eta barne-aberastasuna, oroimena eta begimena hizkuntzaren aberastasunean, belaunaldien arteko loturan eta izadiarekiko harreman orekatuan bizi daitezkeen baieztapena eta erakusketa. Liburuak asko dauka irakasteko, jasangarritasun, pluraltasun eta askatasunaren izenean egun egin eta hedatzen diren araudiek zer ikasi asko baitaukate iraganetik.

Hori dela eta, liburuak kultura gaelikoaren argi-itzal ederrenak erakusten ditu. Eskoziar eta gaelikoez ardurarik daukan orok irakurri beharreko lana da. Gainera, atal oro sarreraz eta ondorioz bildurik dago, ulerterraz idatzirik, eta amaierako sinadurek egile nagusia nor izan den erakutsi arren, liburu osoa esku bakarrak idatzi duen irudipena geratzen da. Gai bat edo beste egilerik egokienak idatzi arren, benetako talde-lanaren emaitza dugu. Eragozpen bakarra dauka liburuak, mamitik at: euskarria. Doan eskaini arren, lana formatu digitalean baino ez dago. Liburu oro eskuetan, mahai gainean edo magalean, izatera deituta dago, begientzako osotasunean egina delako. Eta liburu hau, bereziki, eskuetan erabiltzeko da: aurrera eta atzera, atal batetik bestera. Dena den, formatu digitalean egoteak barne-iradokizunaren eta kei-nuen edozein bilaketa azkar eta erraz egitea ahalbidetzen du.

Bateman eta Pursarren *Window to the West*, hortaz, leiho aparta dugu ondarea, ekologia, sormena, hizkuntza, filosofia eta munduaren eraketa gaelikoz edo lurrarekin lotuago nola izan daitezkeen hobeto ulertzeko. Gogoeta askotarako pizgarri eta iturri izan dakiguke euskal pentalariei.

¹¹ Baileyk labur eta zehatz adierazi zuen legez: “Ez zen uste naturaz gaindikoaren eta naturalaren artean erabateko mugarik zegoenik; izan ere, mundu naturala naturaz gaindiko ordenaren agerpen zuzen gisa ulertzen zen. Indar espiritualak, jainkozkoak edo deabruzkoak, sorkuntza materiala bete egiten zuten, eta mundu fisikoaren eraketetan aktiboak ziren [...] Mundu espiritualaren eta erlijio-sinesmenaren, eta mundu fisikoaren eta arrazionalismo zientifikoaren arteko bereizketa zorrotza, Mendebaldeko kultura modernoaren oinarritzko ezaugarria dena, Europaren modernitateko mugimenduaren produktu nahiko berria da” (Bailey 2007: 3). [No absolute boundaries were believed to exist between the supernatural and the natural; indeed, the natural world was conceived as a direct manifestation of supernatural order. Spiritual forces, divine or demonic, infused material creation and were active in the operations of the physical world (...) The sharp separation of the spiritual world and religious belief from the physical world and scientific rationalism, which is such a fundamental feature of modern Western culture, is a relatively recent product of Europe’s movement toward modernity].

Erreferentziak

- BAILEY, Michael. 2007. *Magic and Superstition in Europe*. Lanham: Rowman & Littlefield.
- BARANDIARAN, Joxe Migel. 1977. "Humanismo vasco (aspectos)". In hainbat egile, *Cultura vasca*. Donostia: Erein, 17-26.
- BATEMAN, Meg. 1990. *The Themes and Images of Classical Gaelic Religious Poetry*. Dokto-re-tesia, University of Aberdeen. https://abdn.alma.exlibrisgroup.com/discovery/delivery/44ABE_INST:44ABE_VU1/12152883090005941
- CAMPBELL, John Lorne. 2014 [2000]. *A Very Civil People. Hebridean Folk, History and Tradition*. Hugh Cheaperen edizioa. Edinburgo: Birlinn.
- CHEAPE, Uisdean. 2020. "The Road to Tobha Mòr". In two parts. *Enchantment and Wonder*. <https://idruhi.wordpress.com/2020/07/02/the-road-to-tobha-mor/> eta <https://idruhi.wordpress.com/2020/07/09/the-road-to-tobha-mor-continued/>
- ETNIKER EUSKAL HERRIA. 2011-2017. *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa (I-XII)*. <https://www.etniker.com/atlas-etnografico-de-vasconia/> eta <https://atlasetnografico.labayru.eus/>
- HAINBAT EGILE. 2022. *Scottish Affairs* 31(1): <https://www.eupublishing.com/toc/scot/31/1>
- MACINNES, John. 2006. *Dùthchas Nan Gaidheal: Collected Essays of John MacInnes*. Michael Newtonen edizioa. Edinburgo: Birlinn.
- MACKINNON, Ian. 2011. "Eachdraidh nar cuimhne" – "History in our memories": *An Analysis of the Idea that the Highlands and Islands of Scotland Can Be Understood as a Site of Colonisation*. Dokto-re-tesia, University of Ulster. <https://ethos.bl.uk/OrderDetails.do?did=1&uin=uk.bl.ethos.573684>
- MACLEAN, Calum I. 1975 [1959]. *The Highlands*. Inverness: Club Leabhar.
- NEWTON, Michael. 2009. *Warriors of the Word: The World of the Scottish Highlanders*. Edinburgo: Birlinn.
- O'DRISCOLL, Robert (arg.). 1981. *The Celtic Consciousness*. Edinburgo: Canongate.
- Ó GIOLLAGÁIN, Conchúr (zuz.). 2022. *Rooting Minority Language Policy in the Speaker Community. Soillse Conference Record*. <http://www.soillse.ac.uk/wp-content/uploads/Soillse-2022-Record.pdf>
- Ó GIOLLAGÁIN, Conchúr, Górdan CAMSHRON, Pàdruig MOIREACH, Brian Ó CURNÁIN, Iain Caimbeul, Brian MACDONALD eta Tamás PÉTERVÁRY. 2020. *The Gaelic Crisis in the Vernacular Community: A Comprehensive Sociolinguistic Survey of Scottish Gaelic*. Aberdeen: Aberdeen University Press. <https://www.uhi.ac.uk/en/research-enterprise/res-themes/humanities-and-arts/language-sciences-institute/publications/the-gaelic-crisis-in-the-vernacular-community/>
- OLIVER, James eta Iain MACKINNON (arg.). 2021. *Scottish Affairs* 30(2): *Scotland's Gàidhealtachd Futures*. <https://www.eupublishing.com/toc/scot/30/2>
- NETTLE, Daniel eta Suzanne ROMAINE. 2000. *Vanishing Voices: The Extinction of the World's Languages*. Oxford: Oxford University Press.
- PURSER, John. 1988. *The Literary Works of Jack B. Yeats*. Dokto-re-tesia, University of Glasgow. <https://theses.gla.ac.uk/76897/>
- PURSER, John. 2007 [1992]. *Scotland's Music: A History of the Traditional and Classic Music of Scotland from Early Times to the Present Day*. Edinburgo: Mainstream.
- TOLKIEN, J. R. R. 2013 [1977]. *The Silmarillion*. Christopher Tolkienen edizioa. Londres: Harper Collins.

WELLS, Peter S. 2012. *How Ancient Europeans Saw the World. Vision, Patterns, and the Shaping of the Mind in Prehistoric Times*. Princeton/Oxford: Princeton University Press.

Jon Mentxakatorre

HUHEZI-Mondragon Unibertsitatea